

Udalak eta herriko eskolek hitzarmena sinatu dute jolaslekuak eskolaz kanpoko ordutegietan ere zabaltzeko

.-Hainbat urtez Ondarreta Herri Eskolako jolaslekuarekin egin bezala, gainerako eskoletako patioak ere zabalduko dira aisialdi edo kirolerako espazioak emendatuz

Andoainen, 24-07-19.- Andoaingo Udalak eta herriko eskolek (Ondarreta Herri Eskolak, Aita Larramendi Ikastolak, eta, La Salle-Berrozpe ikastetxeak) hitzarmena sinatu dute, eskola horietako jolaslekuak eskolaz kanpoko ordutegietan zabalik egon daitezen. Nabarmentzekoa da Ondarreta Herri Eskolaren kasuan erabilpen hori aspaldikoa dela; kasu honetan, gainerako eskolak batu dira ekimenera. Udal gobernuaren agintaldiko planean jasotako neurrietako bat da adostu dena zehazki.

Hitzarmen honek ahalbidetuko du herritarrek eskolaz kanpoko ordutegietan edo asteburuetan ere jolaserako edo kirola praktikatzeko espazio berriak edukitzea. Modu honetara, eskolek izan duten disposizio irekiari esker, herrian zabalik ziren gainerako espazioei gehituko zaizkie eskoletako jolasleku hauek, herritarrei euren aisialdirako aukera gehiago emanez.

Hala, hauek izango dira eskola bakoitzean erabilgarri egongo diren espazioak:

-Ondarreta Herri Eskola: orain arte bezala, patioa eta bertan dagoen jolas-lekua egongo da erabilgarri.

-La-Salle-Berrozpe: La Salle eraikinari dagokionez, Erroitz kaletik sarbidea duen patioa; Berrozpeko eraikinari dagokionez, patioa eta jolas-lekua (komunak ez dira erabilgarri izango)

-Aita Larramendi Ikastola: saskibaloia eta futbol zelaia (frontoi estalia eta ingurukoak ez dira erabilgarri izango)

Espazio hauek uztailaren 22tik aurrera egongo dira erabilgarri; uztaila eta abuztuan goizeko 9:00etatik 21:00etara. Irailtik aurrera astelehenetik ostiralera izango dira erabilgarri, 18:00etatik 21:00etara, eta larunbata, igande eta jai-egunetan 9:00etatik 21:00etara. Edozein kasutan, eskoletako jardueretan ari direnek izango dute erabiltzeko lehentasuna.

Udalak eskerrak eman nahi dizkie eskoletako arduradunei prozesu honetan izan duten eskuzabaltasun eta jarrera onagatik. Etorkizunean ere alde guztien arteko lankidetzara giroa nagusi izatea nahi du Udalak, eta horretarako lan egingo du.